

FUNTSEZKO ELKARTEAK

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Kontuan hartuta gure helburua laguntza psikologiko bat eskeintzea dela, bazkideak gurekin lan egiten duten psikologo eta administrariak izango lirateke. Alde batetik, psikologoak guk eskaintzen dugun zerbitzuaren oinarria dira, eta bestetik, administrariak diru kontuak kudeatzen dituztenak izango dira.



- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen dute bazkideen sareak. Hori dela eta, enpresa batek negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko edo baliabideak eskuratzeko beste enpresa batzuekin aliantzak egin ditzake.

Gure bazkideak, kasu honetan psikologoak dira azken finean gure zerbitzua eskaintzen dutelako, eta bestetik administrariak diru kontuak eramateko beharrezkoak direlako. Modu hartara gure lana erraztu eta diru kontuak kudeatzeko beharrezkoak dira.